

# Politika zientziak

Wikipedia editatzean, batzuetan beldur pixka bat ere izaten dute hasiberriek; bereziki, eskolako lan baterako lehendabiziko aldiz Wikipediara ekarpena egiten ari diren ikasleek. Gida hau Wikipediara historiari buruzko edukiak gehitzeko lana eman zaien ikasleentzat da.

## Izan zaitez zehatza

Wikipedia baliabide bat da, milioika pertsonak historiari buruzko informazioa jasotzeko erabiltzen dutena. Wikipedian historiari buruz irakurtzeko arrazoiak historia bezain askotarikoak dira. Pertsona eta gertaera historikoei buruzko eduki zehatz eta objektiboak dokumentatuz eta partekatuz, lagunduko duzu ziurtatzen mundu osoko jendeak giza jakintzaren eremu zabalago bat duela eskura.

## Uler itzazu jarraibideak

Har ezazu denbora, hemengo iradokizunak irakurri eta ulertzeko; iradokizun hauek Wikipediara egiten dituzun ekarpenei baliorik handiena emateko bidea emango dizute. Jarraibide hauek betetzen ez dituen zerbait argitaratzen baduzu, hori konpontzeak denbora eta ahalegina eska dezake: edukia hobetzen eman zenezakeen denbora eta ahalegin bat. Jarraibide hauen barruan lan egiten eroso sentitzen ez bazara, esaiozu zure irakasleari ea Wikipediaz kanpoko lanen bat emango dizun.

## Jardun ezazu beste editoreekin

Wikipediako esperientziaren parte bat da beste editore batzuen iritzia jaso eta haiei erantzutea. Ez itxaron azken eguneraino ekarpen bat egiteko; bestela, ohar eta iradokizun lagungarriak galduko dituzu. Wikilariak zure lanari buruzko galderei erantzun diezaiekete, edo beharbada galderak egingo dizkizute. Galderarik egiten badizute, erantzun iezaiezu. Esker-

tu iezaiezu emandako laguntza, eta lan egizu haiekin batera, artikulua hobetzeko. Beharbada aldaketak egingo dizkiote zure lanari; edo, jarraibide hauek betetzen ez baditu, artikulutik ezabatuko dute. Horrela gertatzen bada, ez ezazu berriz eduki hori sartu besterik gabe! Galdetu iezaiozu edizioa egin duenari, ea zergatik egin duen, eta ea nola hobetu dezakezun. Eztabaida funtsezko osagaia da Wikipediako prozesuan.

## Saihestu ezazu hurbiletik parafraseatzea

Erabil itzazu zeure hitzak. Plagioa egitea, testuak kopiatuz edo hurbiletik parafraseatuz (hau da, hitz gehienak aldatuz, baina testu originalaren egitura eta esanahia mantenduz), arauen kontrakoa da.

Plagioa egitea zure unibertsitateko ohore lege akademikoa urratzea da. Plagioari, Wikipedian, beste wikilari batzuek antzemango diote, edo tresna automatikoei. Hori gertatzen denean, beharbada zure lana ezabatuko dute, eta online erregistratuta geratuko da plagio gertaera bat zure kontuari lotuta. Baliabide eta autore estandarrak ere —hala nola ikasliburuak— egile eskubideen pean daude, eta inoiz ez dira zuzenean kopiatu behar. Plagioari buruzko arauak Wikipediako alde guztietan aplikatzen dira, baita zure proba orriko zirriborro eta oharrei dagokienez ere.

Arazo hori saihesteko modurik onena da ziurtatzea zeure materiala benetan ulertzen duzula, eta horri buruz zeure hitzekin idazten duzula. Hurbiletik parafraseatzea zer den garbi ez badakizu, jar zaitez harremanetan zure unibertsitateko Euskara Zerbitzuarekin.

## Jar ezazu zeure aletxo

Aukera itzazu gaikideek berrikusitako politika zientzietako liburu edo aldizkarietan —adibidez, American Journal of Political Science edo Political Analysis aldizkarietan— literatura interesgarri eta ugaria duten gaiak. Begiratu hainbat iturritan —adibidez, literatura aztertzen duten argitalpenetan edo Handbook of Political Science liburuan— teoria bat oso hedatua dela adierazi baino lehen.

Aukera ezazu Wikipedian oraindik ondo garatu ez den gai bat. Bilatu zirriborroak diren artikulua. Interesatzen zaizun eremu bateko zirriborroak bilatzeko, idatz ezazu lasterbide hau Euskal Wikipediako bilaketa barran: | lasterbidea [WP:Zirriborroak](#)

### Zer da lasterbide bat?

[WP:Zirriborroak](#) erako testuari, Wikipedian, lasterbidea deritzo. Horrelako lasterbideak teklea ditzakezu Wikipediako bilaketa barran, bestela aurkitzen zailak diren orri espezifikotara erraz iristeko.

### Zer da sarrerako atala?

Sarrerako atal on bat ez da artikulua gain sartu aurreko testu bat. Ez dago irakurlea gaiaren garrantziaz konbentzitu beharrik.

Sarrerako atala, izatez, artikulua txiki bat bezalakoa da; artikulua osoa 1–4 paragrafotan laburbiltzen du.

Lehenengo esaldiaren hasiera izan ohi da **artikulua**ren **gaiaren izena** letra lodiz; esaldi horretan definitzen da gaia, eta hor edo hurrengo esaldietan adierazten da zergatik den gaia garrantzitsua. Adibidez:

«**Oligarkiaren burdinazko legea** teoria politiko bat da, lehen aldiz Robert Michels alemaniar soziologoak 1911. urteko Alderdi politikoak liburuan garatua.»

## Idazten ari zaren artikulua antolatzea

Artikulu bakoitza bakarra izango da, baina hona hemen iradokizun batzuk, idatzi nahi duzun artikuluan zer sartu behar duzun. Atalak erantsi, kendu edo berrantolatu ditzakezu, artikulua gaiari egokitzeko.

### Teoria politiko bati buruzko artikulua

Gertakari historikoei buruzko artikuluek lau atal nagusi izan ohi dituzte:

- Sarrerako atala: Artikulu osoa laburbiltzen duten 1–4 paragrafo.

- Historia: Deskriba ezazu teoria nola garatu zen. Adierazi itzazu kondizio sozioekonomikoak, hala baldin badagokio, bai eta teoria horretan eragina izan duten lehenagoko lan edo gertaerak ere. Hori nahikoa izan behar litzateke testuinguru emateko. Heldu gaiari, adarretatik alde egin gabe; eta jar itzazu wikiloturak zerikusia duten teorialariak eta zeharkako kontzeptuak xehetasun handiagoz azaltzen dituzten artikuluetara.

- Teoria (edo modelo): Teoriaren beraren azalpen labur bat, zeure hitzak erabiliz. Atalak sor ditzakezu, teoriaren edo modeloaren adierazpen edo osagai bereziak azaltzeko.

- Erreakzioak: Jendeak nola egin zuen teoriaren alde edo aurka? Laburbildu itzazu literatura akademikoan jasotako ikuspegiak, eta ikuspegi horietako bakoitza esleitu iezaiozu bere autoreari.

- Eragina: Deskriba itzazu teoria aplikatzeari egotzi zaizkion eraginak.

Adibide ona duzu «Ekologismo» artikulua (baina, artikulua guztiek bezala, horrek ere badu zer hobetua).

### Lege arloari buruzko artikulua

Erresuma, nazio edo zibilizazio historikoei buruzko artikuluek atal hauek izan ohi dituzte:

- Sarrerako atala: Artikulu osoa laburbiltzen duten 1–4 paragrafo.

- Atzeko plano: Deskriba ezazu garrantzia duen edozein testuinguru historiko, eta legearen bidez konpondu nahi zen arazo erreal edo hautemana.

- Xedapenak: Laburbildu ezazu legea zure hitzetan, zuzeneko aipuak gehiegi erabili gabe.

- Erreakzioak: Esplika ezazu zer eragin izan duen legeak, eta nola erantzun duen jendeak.

- Indargabetzea: Legea indargabetu baldin bada, deskriba itzazu legearekin zer arazo izan ziren indargabetze hori eragiteko, eta identifika itzazu eragile eta gertaera nagusiak.

Lege bati buruzko artikulua adibidea duzu «Euskaren Foru Legea» (baina, artikulua guztiek bezala, horrek ere badu zer hobetua).

# Artikulu idaztea

## Pentsa ezazu kritikoki

Nola identifikatu idatzi nahi duzun Wikipedia artikulua eratzeko erabili ditzakezun iturriak? Iturriek fidagarriak eta argitaratuak izan behar dute; eta, oro har, hirugarren batek berrikusiak, zehatzak direla egiaztatzen. Irakurleek uste osoa dute zugaran, gaia zintzotasunez azalduko duzula; horrek esan nahi du ikertu beharra dagoela neurritz azpiko agerpena duten ikuspegiak aurkitzeko, eta eszeptikoa izan beharra dagoela adierazpen muturrekoei edo oso orokorreari buruz.

## Pentsa ezazu globalki

Wikipedia era guztietako jendeak irakurtzen du munduan barna. Artikulu idaztean, kontuan izan ezazu hori. Deskriba ezazu teoria edo lege hori, irakurlea zure Estatuan biziko ez balitz bezala. Egokia denean, hartu edukiak zure herrialdekoak ez diren iturrietatik, eta saihestu itzazu jaio zinen edo bizi zaren herrialdearekiko konparazioak.

## Ebalua itzazu iturriak

Iturriak ebaluatzen ikastea funtsezkoa da zure jakintza eremuari begirada kritikoaekin begiratzeko; eta halaxe da Wikipedian ere. Kontuan har itzazu alderdi hauek:

**Egilea:** Egile ideala da bere eremuan autoritate onartua dena, eta gai horrekin bere neutraltasunari eragingo dion lotura pertsonalik ez duena.

**Testua:** Pentsa orokorrean —egunkarietan, kasu— begiratzeko baliagarria izan daiteke testuinguru historikoa emateko, baina batzuetan ez dira egokiak izaten azterketa edo interpretazioa egiteko. Arreta handia jar ezazu testuinguruan, ea testu bat fidagarria den edo ez zehazteko. Zalantzan baldin bazabiltza, egiazta ezazu lehen mailako iturria (adibidez, legea).

**Argitaratzailea:** Onena litzateke aipatutako lana argitaratzaile akademiko fidagarri batengandik etortzea. Askotan, *think tank* direlakoek eta gobernu kanpoko erakundeek beren ikuspegi espezifi-

koa izango dute. Garrantzitsua da materiala osorik irakurtzea, ikuspegi horiek identifikatzearen eta Wikipedian horren berri alderdikierarik gabe ematearren. Ahal duzunean, hartu edukiak laburpen independenteetatik.

Iturriak nola aipatu jakiteko, ikus | lasterbidea [WP:Erref.](#)

## Identifika itzazu zure irakurleak

Idazten hasi baino lehen, arretaz pentsa ezazu nozintzat ari zaren idazten. Munduan barna dauden era guztietako jendearekin komunikatzen ari zara! Garrantzitsua da adierazten saiatzen ari zaren informazioa ulertzen lagunduko duen modu batean idaztea, baina betiere hizkera entziklopedikoari eutsiz.

Saihestu politikaren edo legearen arloko argota. Arlo horretako ezjakin batek ulertuko ez lukeen termino bat erabili behar baduzu, labur azal ezazu, edota jar ezazu wikilotura bat azalpena ematen duen Wikipe-diako artikulura.

## Idatz ezazu neutraltasunez

Wikipedia ez da inor konbentzitzeko asmoz kulturari edo gizarteari kritika egiteko tokia. Kritika horien berri ematen duen ezaguera partekatze tokia da. Legearen eta politika zientzien arloko informazio ongi iker-tua eta orekatua taxutzea, izan ere, funtsezko zerbitzu publikoa da. Horrek esan nahi du gai horretako alde guztiak zintzotasunez jaso behar dituzula, baita zu ados ez zaudenean ere.

Wikipediaren neutraltasun jarraibideek hau aldeztzen dute: ikuspegi nabarmen guztiak adieraztea, zintzotasunez, proportzioz eta, ahal den neurrian, alderdikierarik gabe. Artikuluek ikuspegi kontrajarrien garrantzi erlatiboa erakutsi behar dute. Ekarpen egokiak askotariko ikuspegiak jasoko dituzte, baina ezin dute ikuspegi horien alde egin.

Wikipediak tonu neutrala eskatzen du artikuluetarako, baina ez du eskatzen iturriak neutralak izatea. Giza eskubideen aldeko taldeei egindako elkarrizketek («neutralak» diren edo ez berdin dio) ederki argi-

tu dezakete ikuspegi jakin bat. Hori baliagarria izan daiteke testuingurua deskribatzeko. Aipa itzazu testu horiek; baina adieraz ezazu zein ikuspegi duten, aipatzekoa baldin bada. Adibidez, «*Errusiako Memorial giza eskubideen aldeko taldeak dioenez [...]*» edota «*Mugarik gabeko Medikuak talde humanitarioak jakinarazi zuen [...]*».

Wikipediako neutraltasun jarraibideez gehiago jakiteko, ikus: |lasterbidea [WP:neutral](#).

# Artikulua garatzea

## Idazteko aholkuak

- Idatz itzazu datu objektiboak. Errespeta itzazu irakurleak, eta onar ezazu datu enpirikoak irakurtzen dituzten bi lagun ez direla ondorio berera helduko beti. Kontuan izan ezazu horrek zer esan nahi duen, datuei buruz zuk egiten duzun interpretazioaz.
- Eskolako lan gehienetan ez bezala, Wikipedian ez da onartzen ikerketa originalik. Wikipediako artikuluek iturriek diotena jaso behar dute, eta ez zure interpretaziorik edo iritzirik.

- Wikipediako artikuluek jende guztiarentzat idazten dira, eta ez zure eremuko adituentzat. Saihestu argota; eta termino akademikorik erabiltzen baduzu, labur azaldu ezazu euskara errazean.

- Hala ere, idatz ezazu modu inpersonalean, dattetan oinarrituta, estilo entziklopedikoarekin; ez idatzi saiakera baten edo blog bateko testu baten modura. Ikus ezazu Wikipedia editatzea gida (lortu du zure ikastaroko orrian), tonuaren ezberdintasuna zein den gogoratu nahi baduzu.

## Azken gogoetak

- Ez utzi lana azken unerako! Wikipediako artikulua on eta fidagarriak idazteko, denbora behar da. Ez itxaron azken minuturaino. Blokeatuta gelditzen bazara, eska iezaiozu irakasleari epe luzeagoa; hobe duzu hori, Wikipediara jarraibide hauek betetzen ez dituen edukia gehitzea baino.
- Begiratu zure orrian. Interesgarria izan daiteke zure artikulua nola hazten den ikustea, baina beharbada iruzkinak eta iradokizunak jaso dituzu beste wikilari batzuegandik, eta beharbada gairan berrietan parte hartu nahiko duzu.
- Zure gaiari buruzko testuinguru zabala zehaztasunez azaltzeko laburpenak idatzi edo atal berriak sortu beharrean, jar ezazu wikilotura bat.
- Artikuluko gaiaren alderdi bakoitzari eman iezaiozu dagokion pisua, gaiari buruzko iturriei jarraituz.



Argitalpen honetan jasotako edukia eta irudiak Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 lizentziaren pean daude erabilgarri, besterik adierazi ez bada.

Wiki Hezkuntzako marka erregistratzekotan dago. Wikipediako logoak eta hitz markak Wikimedia Fundazioaren marka erregistratuak dira. Marka horien erabilera Wikimediaren marka politikaren mende dago, eta horiek erabiltzeko beharbada beharrezkoa izango da baimena ([https://wikimediafoundation.org/wiki/Trademark\\_policy](https://wikimediafoundation.org/wiki/Trademark_policy)). Wikipediaren markei buruzko galderak egiteko, idatz ezazu [trademarks@wikimedia.org](mailto:trademarks@wikimedia.org) helbidera (ingelesez).

Eskerrik asko wikilari hauei: User:Another Believer, User:AustralianRupert, User:Cinderella157, User:Sadads eta User:Wehwalt, gida hau egiteko laguntza baliotsua eman dutelako.

Itzultzailea: Xabier Armendaritz.



E U S K A L  
**WIKILARIEN**  
K U L T U R A E L K A R T E A